

EZ GAUDE BROMATARAKO

Bizi dugun egoera politiko nahasi honetan badira gertaera batzuk interpretaziorako inolako tarterik uzten ez dutenak:

1. Ertzantza (foru polizia, guardia zibila edo polizia «nazionala» bezala), Eusko legebiltzarra (eta Nafarroakoa), Eusko Jaurlaritza (Nafarroakoa ere bai) eta lehendakariak (Gasteizkoa nahiz Iruñeakoa) espainiar estatuko erakundeak dira; espainiar estatuko legeak bete eta betearazteko daudenak, gustatu ala ez, penagarri ala gozagarri gertatu.
2. Erakunde horietakoren baten kudeatzaileak euskal independentziarako bidean jarriko balitu -horrela nahitanahiez espainiar legeak urratuz- Espainiak bertan behera utziko lituzke. Mehatxu horrek bultzatu omen ditu orain Garzonen aginduak betetzera. Baina mehatxuak hortxe jarraitzen du balizko autonomi estatutu berrientzako ere.
3. Estatu batek oinarrizko giza eskubideak sistematikoki zanpatzen ditueneko gertatzen den moduan, legitimatean indartu egin da erresistentziaren adierazpenik bortitzena, borroka armatua, alegia.

Gauzak horrela, irtenbide bakarra ikusten da abertzaleentzat: behingoz, independentziarako plan estrategikoa adostu eta martxan jarri. Orain arte bi faktore nagusi izan dira horrelakorik gauzatzea eragotzi dutenak: EAEko autonomia kudeatu dutenek gaurko estatusari erakutsitako morrontza, batetik, eta ezker abertzaleak borroka armatuaren jardunari erakutsitako menpekotasuna, bestetik. Biek ala biek, Lizarra-Garaziren salbuespenarekin, abertzaleen nekea, asperdura eta desesperantza eragin dute.

Inertia berean segitzeko arriskua daukagu orain ere. EAJ eta EA, gaizki ulertutako pragmatismoaren aitzakian, autonomia zaharberriaren aukerari lotu dakizkioke: «hau da egoera honetan lor dezakegun guztia», «hau ala, bestela, kaosa» eta abar. Ezker abertzalea, galdutako legitimitate zati bat berreskuratu duela ikusita, ekintza bortitzenen biderei lotu dakioke, horrek objektiboki indar abertzaleari eragiten dion atrofiari erreparatu gabe. Ezagunak dira emaitzak. Eta abertzale gehienok, nik uste, ez gaude horrela segitzeko prest. Helburu argiak nahi ditugu, epe zehatzak eta bitarteko eraginkorrak; bai diskurtsoan eta baita eguneroko jardunean ere, espainiar estatuaren politika erasokorrari aurre eginez, burujabetza errealerako, hots, Europako Batasuneko estatu berri baterako lanak lehenbailehen hasiz. Ez gara beste ezerekin konformatuko. Ez gaude bromatarako.